



ZIZURKILGO UDALA

OHIKO OSOKO BILKURARAKO DEIA

Honen bidez, Ohiko Osoko Bilkurarako deitzen dizut:

Eguna: 2012ko maiatzaren 14a, astelehena

Ordua: 19:00

Tokia: Udaletxeko Osoko Bilkuren Aretoa

CONVOCATORIA A PLENO ORDINARIO

Por la presente le convoco a la Sesión de Pleno Ordinario a celebrar:

Día: 14 de Mayo de 2.012, Lunes

Hora: 19:00

Lugar: Salón de Plenos de la Casa Consistorial.

EGUNEKO AZTERGAIK

1.- AURREKO UDALBATZAREN AKTAK ONARTZEA, BIDEZKOA BADA (2012.03.26 eta 2012.04.16).

2.- AITOR SARASUA ARRITI JAUNAK ZINEGOTZI KARGUA HARTZEA.

3.- "TOLOSALDEA OSASUN PUBLIKOAREN ALDE" KOORDINA KUNDEAK AURKEZTUTAKO MOZIOA.

4.- ALKATEAREN DEKRETUAK JAKINARAZTEA (2012/52tik 2012/76ra).

5.- GALDE-ESKAKIZUNAK.

ORDEN DEL DIA

1.- APROBACION, SI PROCEDE, DE ACTAS DE PLENOS ANTERIORES (26.03.2012 y 16.04.2012).

2.- TOMA DE POSESION DEL CARGO DE CONCEJAL POR PARTE DE DON AITOR SARASUA ARRUTI.

3.- MOCION PRESENTADA POR LA COORDINADORA "TOLOSALDEA OSASUN PUBLIKOAREN ALDE".

4.- COMUNICACION DE DECRETOS DE ALCALDIA (del 52/2012 al 76/2012).

5.- RUEGOS Y PREGUNTAS.

Zizurkil, 2012ko maiatzaren 10ean.

Alkatea.

Zizurkil, 10 de Mayo de 2.012

El Alcalde.





ZIZURKILGO UDALA

**2012ko MAITZAREN 14an
EGINDAKO OHIKO BILKURAKO AKTA**

**ACTA DE LA SESION ORDINARIA
CELEBRADA EL DIA 14 DE MAYO DE
2.012**

Partaideak/ Señores Asistentes:

ALKATEA / ALCALDE:

José María Luengo Zapirain Jauna (Bildu)

ZINEGOTZIAK/CONCEJALES:

Eva Usandizaga Mujika (Bildu)

M^a Angeles Lazkano Larrañaga (E.A.J.-P.N.V.)

Nerea Lizarraga Gabirondo (Bildu)

Aritz Esnaola Arruti (Bildu)

Leire Zubeldia De Esteban (Bildu)

Alaitz Ormazabal Goenaga (Bildu)

Oscar Martínez Orive (P.S.E.-E.E./P.S.O.E.)

Aitor Sarasua Arruti (Bildu)

IDAZKARIA /SECRETARIO:

José Ramón Eceizabarrena Garmendia

Udaletxeko Osoko Bilkuren Aretoan, bi mila eta hamabiko maiatzaren hamalauko hemeretzi orduak direnean, Zizurkilgo Udaleko Udalbatza bildu da, Alkate jaunaren lehendakaritzapean eta goian aipatzen diren zinegotzien partaidetzarekin. Egoitz Soroazabal Iturain (E.A.J.-P.N.V.) eta Aratz Alkorta Irazusta (Bildu) zinegotziak ez dira etorri.

Lehendakaritzaren aginduz bilkura hasi da eta Idazkariak jakinarazi du berau egin daitekeela lege ezarritako quoruma bertan dagoelako.

**1.- AURREKO UDALBATZAREN AKTAK
ONARTZEA, BIDEZKOA BADA
(2012.03.26 eta 2012.04.16).**

Udalbatzak aho batez erabaki du 2012ko martxoaren 26an eta apirilaren 16an egindako Bilkuraren Aktak onartzea.

En el Salón de Sesiones de la Casa Consistorial, siendo las diecinueve horas del día catorce de Mayo de dos mil doce, se reúne la Corporación del Ayuntamiento de Zizurkil bajo la presidencia del Señor Alcalde y con la asistencia de los Señores Concejales que arriba se citan, no asistiendo los concejales Egoitz Soroazabal Iturain (E.A.J.-P.N.V.) y Aratz Alkorta Irazusta (Bildu)

Abierta la Sesión de orden de la Presidencia, el Secretario informa que la misma puede celebrarse por concurrir a ella el quórum legalmente establecido.

**1.- APROBACION, SI PROCEDE, DE
ACTAS DE PLENOS ANTERIORES
(26.03.2012 y 16.04.2012).**

La Corporación, por unanimidad, acuerda aprobar los Actas de los Plenos celebrados los días 26 de Marzo y 16 de Abril de 2.012



ZIZURKILGO UDALA

2.- AITOR SARASUA ARRITI JAUNAK ZINEGOTZI KARGUA HARTZEA.

Hauteskunde Junta Zentraletik, Aitor Sarasua Arruti Jaunaren aldeko Zinegotzi Kredentziala jaso da, Bildu – Eusko Alkartasuna – Alternatiba udal taldeari dagokion hutsunea betetzeko, Jose Manuel Izagirre Hortelano jaunaren orde. Interesatuak Zinegotzi kargua onartzen du, indarrean dagoen legediaren arabera eta karguak dakartzan eskubide eta betebeharrekin.

3.- “TOLOSALDEA OSASUN PUBLIKOAREN ALDE” KOORDINA KUNDEAK AURKEZTUTAKO MOZIOA.

Aurkeztutako Mozioa Akta honen I Eranskinan ikusi daiteke.

Udalbatzak Mozioa onartzeko dagokion bozketa egiten du eta emaitza hau izan da:

- Aldeko botoak: 8 (7 Bildurenak eta 1 E.A.J.-P.N.V.rena)
- Aurkako botoak: 0.
- Abstentzioak: 1 (1 del P.S.E.-E.E./P.S.O.E.rena)

Beraz, botoen gehiengoarekin, aurkeztutako Mozioa onartu egiten da.

P.S.E.-E.E./P.S.O.E.ko zinegotziak adierazi du bere botua abstentzioa izan dela eztabaidatutako Mozioari buruzko informaziorik ezagatik.

4.- ALKATEAREN DEKRETUAK JAKINARAZTEA (2012/52tik 2012/76ra).

2012/52tik 2012/76ra zenbakia duen Dekretuen zerrendaren berri ematen da, 2012ko martxoaren 26tik maiatzaren 8ra Alkateak sinatutakoak. Jatorrizkoak, Alkatearen Dekretu Liburuan jasota daude eta bertan aztertu daitezke.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

2.- TOMA DE POSESION DEL CARGO DE CONCEJAL POR PARTE DE DON AITOR SARASUA ARRUTI.

Recibida de la Junta Electoral Central la Credencia de Concejales a favor de Don Aitor Sarasua Arruti para ocupar la vacante correspondiente al grupo municipal Bildu – Eusko Alkartasuna – Alternatiba, en sustitución de Don José Manuel Izagirre Hortelano, el interesado acepta el cargo de Concejales y desempeñar su cargo de acuerdo con las disposiciones legales vigentes y con los derechos y obligaciones que conlleva el cargo.

3.- MOCION PRESENTADA POR LA COORDINADORA “TOLOSALDEA OSASUN PUBLIKOAREN ALDE”.

La Moción presentada es la que se refleja en el Anexo I del presente Acta.

La Corporación vota la aprobación de Moción presentada, con el siguiente resultado:

- Votos a favor: 8 (7 de Bildu y 1 de E.A.J.-P.N.V.)
- Votos en contra: 0.
- Abstenciones: 1 (1 del 1 del P.S.E.-E.E./P.S.O.E.)

Por lo que el Pleno de la Corporación, por mayoría de votos, acuerda aprobar la Moción presentada.

El concejal del P.S.E.-E.E./P.S.O.E. manifiesta que su abstención se debe a la falta de información sobre la Moción debatida.

4.- COMUNICACION DE DECRETOS DE ALCALDIA (del 52/2012 al 76/2012).

Se da cuenta del listado de los Decretos nº 52/2012 al 76/2012 firmados por la Alcaldía entre el 26 de Marzo y el 8 de Mayo de 2012, cuyos originales se conservan y pueden ser examinados en el Libro de Decretos de Alcaldía.

La Corporación se da por enterada.



ZIZURKILGO UDALA

5.- GALDE-ESKAKIZUNAK.

Bilduk Osoko Bilkurari jakinarazi dio hausnarketa prozesu bat martxan jarri dela Aiztondo Bailaran, eta aspektu desberdinei buruzko hausnarketa izango dela: kultura, hezkuntza, gizarte zerbitzuak eta azpiegiturak.

Bileretan parte hartu nahi duen orok irekia du atea. Horrela, datorren asteazkenean, hilak 16, hezkuntzako foroaren lehen bilera izango da.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

Beste aztergairik gabe, eta hemeretzi orduak eta hogeit hamar minutuak direnean, Batzarra amaitu da eta honetaz guztiaz nik, Idazkariak, fede eta kontu ematen dut.

O.I.
ALKATEA.

Vº Bº
EL ALCALDE.



5.- RUEGOS Y PREGUNTAS.

Bildu informa al Pleno que se ha abierto un proceso de reflexión a nivel de la Comarca de Aiztondo, que abarca diferentes aspectos: cultura, educación, servicios sociales e infraestructuras.

Todos aquellos interesados en participar en las reuniones tienen la puerta abierta. Así, el próximo miércoles, día 16, se celebrará la primera reunión del foro de educación.

La Corporación se da por enterada.

Y sin más asuntos que tratar, y siendo las diecinueve horas y veinte minutos, se levanta la Sesión, de la cual, yo, el Secretario, doy fe y certifico.



I ERANSKINA - ANEXO I

ZIZURKILGO UDALA

“Tolosaldea Osasun Publikoaren alde” koordinakundeak, honako adierazpena egiten du Zizurkilgo Udaleko udalbatzak eztabaida eta onar dezan.

ZIOAK:

2011ko azaroa ezkerotik Eusko Jaurlaritzako Osasun eta Kontsumo Sailak TOLOSALDERAKO OSASUN ARRETA EREDU BERRIA inposatu digu herritarroi. Proiektu berri honetan, Izaskungo Ama Espezialitateetako Anbulatorio publikoa isteko erabakia hartzen da, espezialitate guztiak Asuncion Klinika pribatu-kontzertatuaren esku geratuko direlarik. Horren ondorioz osasun sistema publikoa kaltetua eta ahulduta geldituko da Tolosan zein Tolosaldean, Andoainen eta Legorretan.

Bestetik, Tolosa da sare publikoko Eskualde Ospitale Publikoa ez duen Euskal Herriko eskualde bakarra, eta egitasmo honekin horrela jarraituko du.

Tolosaldeako eskualdeak indar eta pisu demografiko nahikoa du, herritarroi egokia izango zaigun kalitatezko zerbitzu bat eskainiko digun ESKUALDE OSPITALE PUBLIKOA izateko. Beste eskualdeetan bezalaxe.

Hori guztiagatik mozio hau aurkezten da Zizurkilgo udalaren Osoko Bilduran, honako hau

ONAR DEZAN:

ZIZURKILGO UDALA
2012 API. 12
SARREREN ERABAKIA
Zenbakia 271



ZIZURKILGO UDALA

Mozio honen edukia hau izango da:

- 1.- Asuncion Klinikaren publifikazioa eskatzen dugu. Eskualdeak kudeaketa erabat publikoko Eskualdeko Ospitale Publikoa izan dezan.
- 2.- Osasun zerbitzu honek, beste eskualdeetan eskaintzen denaren mailako kalitatea bermatzea eskatzen dugu.
- 3.- Afera honek eragiten dien alde guztien artean (Osasun Saila, langileen ordezkariak, Gipuzkoako Foru Aldundia, eskualde horretako Udalak, plataformaren ordezkariak) alderdi anitzeko mahaia osatzea eskatzen dugu. Mahai honek definitiko duen klinikaren publifikazioa (epeak, zerbitzua hobetzeko eta garatzeko plana, langileen subrogazio zein erregulaziorako bidea).
- 4.- Mahai honek publifikazioa egiteko moduaren gaineko akordioa eskuratu beharko du lehenbailehen. Bien bitartean, Eusko Jaurlaritzak sinatutako konbenioaren ondorioz hartzen ari den neurri guztiak bertan behera utz ditzala eskatzen dugu: espezialitateen ambulategia hustea horren adibide.
- 5.- Klinikaren egitura enpresarialak egindako balizko iruzurrak eta legez-kanpokoak ikertzea.